

Zer ezkututzen dute fikzioak eraikitako hiriek?

Obaba, Gilead eta Rivendell

Laburpena

Gureak bezain errealak diren fikziozko hiriek inguratzen gaituzte. Mundu berri bat sortzeko erabakiaren atzean arrazoi ugari egon daitezke; kasu batzuetan, egileak bere garaia eta gizartea islatu nahi dezake, hiri generikoa sortuz, edo distopiaren bitartez. Beste kasuetan, besterik gabe, egileari errealitatea txiki geratzen zaio.

Gako-hitzak: fikziozko hiriak, distopiak, klasifikazioa, fikziozko errealitatea.

Abstract

We are surrounded by fictional cities, reals as ours. Behind the decision of creating a whole new world there may be many reasons; in some cases, the author wants to reflect the society he or she is living in, creating the generic city, or using a dystopia. In other cases, simply, the reality is too small for the author.

Keywords: fictional cities, dystopias, classifications, fictional reality.



Alexander Martinez Iturria
Arkitektoa eta idazlea.

Bidaltze data: 2019-06-17
Onartze data: 2019-09-02



Fikzioak eraikitako hirietan bizi gara. Autobusean liburu bat irekitzean askotan egiten dugu jauzi fikziozko errealitate batera, lanetik bueltan etxera ailegatu eta telesaila ikustean dragoiz beteriko hirietara egiten dugu ihes, seme-alabak lokartzeko asmatzen ditugun istorioek fantasiaren bidez besarkatzen dituzte. Denok ezagutzen dugu baten bat, denak ibili gara noizbait Obaba edo Camelotetik, Winterfell, Tlön edo Macondotik, Arkham, Lilipath, Trantor, Sion, Pandora edota beste hiri batzuetako kaleetatik zehar.

Zeren, konturatzen ez garen arren, uste baino errealitate, mundu eta hiri gehiagok inguratzen gaituzte. Batzuk ez daude guztiz zehazturik, forma zehatzik gabeko sasi-hiriak dira, baina, beste asko, guztiz definituak daude, beren izen eta historiarekin, beren gizarteekin, gure hiri eta herriak bezain errealak dira.

Literatura da fikziozko hirien gotorleku nagusia, kasu askotan ikus-entzunezkoen bitartez hedatu direnak azken hamarkadetan. Egile askok eta askok, beren istorioak azaltzeko, errealitatean aurkitu ezin dituzten hiriak asmatzea erabakitzen dute. Zergatik, baina, eraiki hiri edota mundu berri bat? Zer arrazoi daude erabaki horren atzean? Ez dago erantzun bakar bat, fikziozko hiriak mota askotakoak direlako. Hurrengo lerroetan, fikziozko errealitateetatik bidaia proposatzen dizuet, bai eta hiriak klasifikatzeko modua ere, egileak fikzioa sortzeko eduki duen arrazoiaren arabera.

Lehenengo puntua, hasi aurretik, klasifikazio horren arrazoiak argitzea izan daiteke. Artikulu honen muina ez baitago

mundu akademikora zuzendua, fikziozko hirietan eginiko bidaiaren isla baita. Irakurlea ohartuko da, klasifikazioa bera ezagutzea baino, interesgarriagoa dela klasifikazioa eta haren atzean dagoen prozesua ulertzea. Errealitateetik ihes egin eta uste baino gertuago ditugun fikzioetatik ibiliz, horiek hausnartuz, miatuz eta dastatuz, haien izaeraren sakontasuna eta interesaren zertzeladak jasoko ditu akaso eta, fantasiara irekitzen zaion hurrengo leihatilan, mundu koloretsuagoa aurkituko.

I- Errealitateari heldu, eta horren isla sortu

«Herri hartaz geroz ehun eta hogeita zazpi errebuelta geratzen zitzaizkigun Obabaraino» (Atxaga, 1988: 254).

Klasifikazio hau egiteko orduan, hizpide nagusia izan da egileak, fikzioa sortzeko orduan, bere garai eta gizartearekiko eduki duen lotura. Lehen kasuan, egileak bere errealitatearekiko lotura sendoa dauka, eta hori hausnartzeko, hori erakusteko, edota hori salatzen sortzen du fikziozko hiri edo mundua. Bigarren kasuan, egileak ez du bere garai edo gizartearekiko lotura zuzenean sortzen, fikzioa eta, besterik gabe, errealitate berri bat sortzen du bere obrak eduki beharreko baldintzak dituen.

Lehen kasuaren barruan, bi talde bereizi ditut. Bietan du egileak bere gizarteaz eta garaiaz egitea helburu, baina kasu bakoitzean hori egiteko modua da ezberdina. Lehen taldean, egileak modu zuzenean erakusten digu bere hiri edo herria, bere arazo eta abantailak. Fikzioak hori guztia biltzen duen herri edo hiri generikoa sortzeko balio du.



1. irudia - Montxo Armendarizen pelikularen fotograma, Izaba, Uztarroze eta inguruak Obaba bihurtu zirenekoa.
Iturria - Obaba pelikula.

Rem Koolhasek, *The generic city* kontzeptuarekin, aireportuaren adibidea erabili zuen bere ideia azaltzeko. Askotan, aireportu batean, ezin jakin zein herrialdeetan gauden, denak baitira berdinak. Hiri edo herri askotan gauza bera gerta daiteke. Talde honetako egileek fikzioa erabiltzen dute hiri edo herri generikoa sortzeko, garai eta lurralde jakin bateko herri guztiak irudikatzen dituen, eta aldi berean, bat bera ere ez. Bernardo Atxagaren Obaba dugu adibide argi eta gertukoena, landa-eremuko Euskal Herria herri bakar batean bilduz, Asteasu izan zitekeena, baina baita Lesaka ere, Idiazabal, Urdax eta Oñati. Era berean, 20ko hamarkadan jada William Faulknerrek eraikia zuen Yoknapatawpha, kotoia jasotzen zuten esklaboez marrazturiko Estatu Batuak islatzen dituen.

Zergatik, orduan, sortu fikzioa? Zergatik ez, besterik gabe, errealitatea erabili? Alde batetik, irakurleari sortzen dion gertutasunarengatik. Obabako jostundegiaz irakurtzean, herri bat dena, baina aldi berean Euskal Herriko herri guztiak,

2. irudia - Minas Tirith, trilogiaren azken pelikulako fotograma. J.R.R. Tokien idazleak, hizkuntza bat, mitologia eta istorioa ez ezik, arkitektura ere egiteko denbora eduki zuen.
Iturria - Lord of The Rings pelikula.

erraz ikuskatu dezake irakurleak bere oroitzapeneko jostundegia, eta konturatu orduko Obabako kaleetan ari dela oinez. Beste aldetik, fikzioa sortzean, herriari izena aldatzearekin soilik, errealitatearekiko distantzia ematen du, eta horren arau irmoak hausteko aukera. Macondo da, dudarik gabe, horren adierazle argiena. Gabriel García Márquezek Latinoamerikako hainbat eta hainbat herriren historia gordina azaltzen digu, baina, era berean, azaltzen dizkigun istorioak errealitateetik urruntzen doaz askotan, errealismo magikoa deritzonaren eskuz.

II- Errealitateari heldu, eta hortik jauzi egin

«BIG BROTHER IS WATCHING YOU» (Orwell, 1948: 7).

Baina, egile asko, beren garaia eta gizartea hausnartu edo salatzeke helburu berarekin, pauso bat harago doaz. Errealitatea erakutsi beharrean, errealitatea izango dena, edo izan zitekeena imajinatzen dute; distopia eta etorkizuna



3. irudia - Offred pertsonaia, *The Handmaid's Tale* eleberriko protagonista, izen bereko telesailaren fotograma.

Iturria - *The Handmaid's Tale* telesaila.

erabiltzen dituzte euren hiriak sortzeko. Izan etorkizunean kokatuta, izan errealitate distopiko batean, fikziozko hainbat hirik egilearen orainaldian dute heldulekua. Horrek ez du esan nahi, obra futurista edota distopiko guztiak, talde honetan sartzen ditudanik.

Fikziozko hiriak ez ezik, fikziozko gizarteak ere aurkitu ohi ditugu kasu hauetan, gizartea aldaketa bortitz baten aurrean aurkitu denean sortuak izan direlako kasu askotan. Era berean, obra hauek beste hainbat arte-arlotan izan diren mugimenduen eskutik uler daitezke, hala nola espresionismoa edo futurismoa. Lehen adibide argia Fritz Langen *Metropolis* pelikulan dugu, 20ko hamarkadan eginikoa, eta XX. mende osoan zehar erraz aurki ditzakegu antzeko xedea duten fikziozko munduak, bizi dituzten garaiei erantzuteko sorturikoak; Adox Husley eta *Brave New World*, George Orwellek erakusten digun Londres 1984 nobelan, Isaac Asimovek planteaturiko inteligentzia artifizialaren legeak, edota Ridley Scottrek sorturiko 2019ko Los Angeles *Blade Runner* pelikulan.

Bi lehen talde hauen berezitasuna, beraz, garai eta gizarte jakin batekin duten lotura da. Ariketa interesgarria da, egileak fikzioa sortzeko orduan ea helburu hori zuen jakiteko, obra bera belaunaldi bat lehenago edo bat beranduago idatzia izan balitz ezberdina izango zen edo ez imajinatzea. Margaret Atwoodek 1984 urtean idatzi zuen *Handmaid's Tale* eleberria eta, hogeita hamar urte geroago, moldatu berri da telesailan, eta oso interesgarria da liburuak eta telesailak dituen aldeei erreparatzea. Batzuk agerikoak dira, teknologiarekin zerikusia dutenak adibidez, baina beste batzuk ez horrenbeste. Protagonista, telesailan, askoz ere aktiboagoa da ezarritako gizartearen aurka, ezinbestean azken urteetan feminismoak eduki duen eboluzioaren eskutik. Beste adibide bat, *V for Vendetta* komikian dugu. Diktadurak hartutako Londres agertzen zaigu, prentsan hedatutako gezur bati esker boterea lortu ondoren, gaur egun sinisteko zaila egin daitekeena. Haatik, erraz imajinatu dezakegu norbanakoaren kontrola Londresen aurki daitezkeen segurtasun-kamerekin lortzea, edo Interneten

gure errutinak kontrolatzearekin, edo sare sozial eta iritzi publikoaren kontrolarekin, garaikidea dugun Black mirror telesailak erakusten dizkigun hainbat distopiatan ikus dezakegun moduan.

III- Errealitateak ihes egin, errealitate berria sortu

«A long time ago, in a galaxy far, far away» (Lucas, 1977).

Beren garai eta gizartearekin lotura esturik gabe sorturiko obrak ditugu azken talde honetan. Baina egile batek bere errealitatearen eraginik gabe sor dezakeela esatea gezurra da. Ezinbestean, haien bizitza osatzen duenaren eragina ageri da obran. Askoren iritzi, J.R. Tolkienen obran industrializazioaren salaketa ageri da; Isengardeko orko eta Ent zuhaitz-gizonen elkarren arteko borroka, funtsean, makinaren eta naturaren arteko guda da. Antzeko moduan, *Game of Thrones* agerikoa da egungo politika eta botere-nahiaren isla. Baina, haien garaiko eragina nabari daitekeen arren, ez dut uste, fikzioa sortzeko momentuan, egileen helburu nagusia bizi zuten errealitatea hausnartzea edo salatzea denik, lehenengo bi taldeetan gertatzen den bezala. Aurreko ariketa imitatuz, ez litzateke ezinezkoa imajinatzea *Game of Thrones* duela mende bat idatzi zenik eta, *The Lord of the Rings*, gaur egun.

Beraz, egilearen garaia eragina izan arren, hori islatzea helburu nagusizat ez duten fikziozko hiri eta munduez ari naiz azken talde honetan. Egileak, bere obra garatzeko, errealitatean aurkitu ezin duen ingurunea behar du, eta errealitatearen kateak hautsiz bere errealitate propioa sortzen du. Gehienetan, fantasiak eta zientzia-fikzioak ornitzen ditu.

Fantasia da haurrentzat sorturiko obren ezaugarri komuna kasu askotan, eta bertan sortu diren fikziozko hainbat hiri daude talde honetan. Peter Panek hegan eginez garamatza Neverlandera adibidez, untxiaren atzetik aurkituko ditugu Alizia eta Wonderland, espazioan nonbait Le petite princek bizitoki duen planetatxoak. Jada gazteagoentzat pentsaturiko eremuan ditugu aurrerago esandako J.R. Tolkien eta G.R.R. Martinen munduetako Rivendell, Winterfell eta abar, bai eta Lovecraftek sorturiko mundua, Cthulu eta antzeko piztiez osaturikoa, Arkhameko herria duena ezagunena. Fantasiatik baino zientzia-fikziotik gertuago dugu Wachowsky ahizpek Matrixera ireki ziguten atea, bai eta Sion lurpeko erresistentzia-hiria, Luke Skywalker hazten ikusi zuen hiru ilarigiko Tatooine planeta, James Cameronek Avatar pelikulan sorturiko Pandora eta, umorez inguraturik, Matt Groeningek Futurama telesailan (ber)eraikitako New New York.

Baina badira erregistro hauetatik urrun ere mundu berriak eraiki dituzten egileak. Italo Calvinok, *La città invisibile* obran, Marco Poloren bidaiak azaltzen dizkigu, ezagutzen ez genituen moduan. Era berean, J.L. Borges da adibide oso nabarmengarria. *Ficciones* eleberrian Tlön, Uqbar eta gizarte oso bat eraiki zituen, eta antzeko gauza *El Aleph* obran, sotoko azken eskaileraren azpian ezkutatzen den unibertso sekretuarekin. Baina, fikzioak eraikitzeko zuen erraztasuna ipuin horietatik harago doa, bere obra guztia

hartuz. Eguneroko egoerez ari denean, ezin utzi sentitzeari beste unibertso batetik gertu gabiltzala, gure errealitatea osatzeko fikzioa beharrezkoa dugula. «*Debo a la conjunción de un espejo y de una enciclopedia el descubrimiento de Uqbar*» (Borges, 1944:15). Ederra da, fikzioa horren gertu edukita bizi garea jakitea.

Ondorioak

Fikzioan murgildurik eginiko bidaiak honetan, fikziozko hiriak klasifikatzeko modua proposatu dizuet, egileak hiri sortzeko orduan izandako arrazoiak kontuan harturik eginikoa. Badira, alde batetik, errealitateari heldurik eginiko sorkuntzak, izan garaia eta gizartea hiri generiko bakarrean bilduz (I), izan errealitateak etorkizun edota distopiarak jautsi eginez (II). Beste alde batetik, errealitateak ihesean mundu eta hiri berriak eraiki dituzten kasuak ikusi ditugu (III) klasifikazio hau bukatzeko.

Akaso, zuentzat ere, niretzat bezalaxe, klasifikazioa aitzakia besterik ez da izan. Aitzakia minutu batzuetan ezagunak ditugun hamaika hiritara ihes egiteko, eta haien izaeraz hausnarketa egin. Aitzakia, gure errealitatea zaintzen duten harresiak zein hutsalak diren ulertu eta beste aldean zain dugun mundua ikuskatzen hasteko.

III

Bibliografia

- Atxaga, B. (1988): *Obabakoak*, Erein, Donostia.
- Koolhaas, R. (2006): *La ciudad genérica*, Gustavo Gili, Bartzelona.
- Orwell, G. (1949): *1984*, Secker & Warburg, Londres.
- Lucas, G. (1977): *Star Wars: A new hope*, Lucasfilms, Kalifornia.
- Calvino, I. (1972): *La città invisibile*, Einaudi, Torino.
- Borges, J.L. (1944): *Ficciones*, Emecé editores, Buenos Aires.